

2005eko URRIAREN 10eko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi mila eta bosteko urriaren hamarrean, goizeko zortziak direnean, Alkatea: Joseba Egibar Artola; Udalkideak: Patxi Ezkiaga Ormazabal, Xabier Arrese Arratibel eta Jose Antonio Imaz Insausti; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- LIZARTZAKO LAGUNTZAZKO ARAUETAKO U-1 INDUSTRI EREMUAREN XEHETASUN AZTERLANAREN BEHIN BETIKO ONARPENA

Udal honetako Alkatetzak, bi mila eta bosteko martxoaren zazpiko Alkatetza Dekretuaren bidez, "Lizartzako Laguntzazko Arauetako U-1 Industri Eremuaren Xehetasunezko Azterlanari" lehen onarpena eman zion.

KONTUTAN HARTUAZ.- Erabaki hori, 2005eko Martxoaren 22ko, 55 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta 2005eko Martxoaren 23ko Berria egunkarian, hamabosteko epean, jendeaurrean egon zela, eta ez zela inolako alegaziorik jaso.

TJOL.ko 54. eta Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren 173. Artikuluaren arabera, Idazkariak Txostena luzatu du.

TJOL.ko 114. eta Planeamenduko Erregelamenduaren 130 eta 131. artikuluek ikusirik, Udal Batzarrari, proposatu zaio:

ERABAKIA

1.- "Lizartzako Laguntzazko Arauetako U-1 Industri Eremuaren Xehetasunezko Azterlana"ri, behin-betiko onarpena ematea.

2.- Erabakia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

"Lizartzako Laguntzazko Arauetako U-1 Industri Eremuaren Xehetasunezko Azterlanaren Onarpenari buruzko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, gehiengo absolutuaren "quorum"arekin, aho batez onartua izan da.

3.- EUDEL (EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA)REN KIDE IZATEA

Espedientearen berri emanez,

Kontutan hartuz, Erakunde horren asmoak, bere Estatutuen 5garren artikulua arabera, Udalaren suduen aldetik guztiz onuragarritzat hartu behar direla.

Kontutan hartuz, aipatu Estatuto hoi 7garren artikuluekin bat etorritik, Elkartearen sartzen diren Udalak eskubide osoko kideak direla.

Kontutan hartuz, Udalerriak nortasun juridikoa duela eta Udal hau bere izenean kidea izateko gai dela.

Toki Errejimenaren Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen 47.2 artikulua ikusirik,

Udalbatza osoak, aho batez, onartzen duela Euskadiko Udalen Elkarteari etxekitzea, eskubide osoko kide bezela bertan sartuko delarik.

4.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

**ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ARAUTZEKO
ERREGELAMENDUA**

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Helburua

Erregelamendu honen xedea, Lizartza udalerriko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzea da.

2. artikulua. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren definizioa

Etxez Etxeko Zerbitzua giza izaerako komunitate zerbitzu bat da, banakako laguntza eskaintzen duena. Zerbitzu hau prebentzio, hezkuntza eta asistentzia arloan eskaintzen da, eta ongizate fisiko nahiz soziala mantendu edo-eta berregituratzeko arazoak dituzten pertsona nahiz familiei zuzendua dago. Posible eta egokia de heinean, beraien etxean edo inguruan bizitzen jarraitzea bultzatu nahi da.

Azken finean, zerbitzu honek, eguneroko lanak egiteko zailtasun edo-eta gaitasunik ez duten pertsonen autonomia eza konpentsatuko du. Zerbitzua erabiltzailearen etxean eskainiko da, eta zerbitzu hori norbera zaintzeko edo etxeko lanak egiteko izango da.

3. artikulua. Zerbitzuaren helburuak

- a) Gizartearen edo norberaren ezgaitasunen eraginez, independentzia pertsonala mugatua dutenen artean, bazterketa, bakardadea eta utzikeria egoerak ekidin eta prebenitzea; batik bat, bakarrik eta laguntzarik gabe bizi direnen artean.
- b) Eguneroko lanak berez egin ezin dituzten erabiltzaileei laguntza ematea, eta aldi berean, euren kabuz baliatzeko gaitasunak sustatzea.

- c) Familiaren eginkizunaren osagarri izatea, baldin eta familikoek ezin badiete behar horiei behar bezala erantzun
- d) Zerbitzuaren erabiltzailea bere inguru sozial eta afektiboan, lehen bezala, mantentzea.
- e) Egoitzetan sartu nahi ez duten edo sartzeko beharrik ez duten pertsonen sarrera ekiditea edo atzeratzea, eta euren egoerari hobeto datorkion aukera proposatzea.
- f) Zerbitzuaren erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzea, eta euren segurtasuna, autonomia eta gizarte harremanak indartzea.
- g) Pertsona nahiz familiaren garapena oztopatzen duten ohitura desegokiak zuzentzea.

4. artikulua. Aparteko kasuak

Kasu jakinetan, zerbitzuaren eskaintza hobetu ahal izango da, aldez aurretik zerbitzuaren arduraduna den gizarte laguntzaileak horren beharra ikusten badu eta Udaleko Gobernu Batzarrak proposamen hori onartzen badu.

II. KAPITULUA. UDALAREN ESKUMENA ETA EGINKIZUNAK

5. artikulua. Lizartzako Udaleko eskumenak.

Honako hauek dagozkio Udalari:

- a) Zerbitzua kudeatzea eta burutzea
- b) Zerbitzu honen inguruan, udalerrian dauden beharrak antzematea
- c) Zerbitzua finantzatzeko dauden baliabideak koordinatzea

- d) Ahalik eta zerbitzurik onena ziurtatzearen, kudeatzeko modurik eta kontraturik egokiena aukeratzea
- e) Zerbitzuaren inguruko eskaerak baloratzea eta ebatzea
- f) Zerbitzuaren erabiltzaileari eskaini beharreko arreta definitzea, eta zerbitzuaren egitekoak eta maiztasuna zehaztea.
- g) Zerbitzuaren erabiltzaileek ordaindu beharrekoa erabakitzea
- h) Gainontzeko prestazio eta baliabideekin batera, zerbitzua koordinatzea
- i) Zerbitzuaren erabiltzaileen egoerari buruzko jarraipena egitea, eta zerbitzuaren kalitatea ebaluatzea
- j) Zerbitzutik kanpo geratutako eskabideei buruzko informazioa jasotzea
- k) Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Sailera beharrezko informazioa igortzea, beti ere, Aldundiak eskatzen dituen agiriak erantsita.

6. artikulua. Zerbitzuko arduradun den Gizarte Lagilearen eginkizunak.

- a) Kontuan hartu beharreko kasuak detektatzea, aztertzea eta diagnostikatzea
- b) Esku-hartzearen xedeak zehaztea, ezarri beharreko metodologia eta zerbitzuaren maiztasuna proposatzea
- c) Ematen zaion zerbitzuagatik onuradunak egin behar duen diru-ekarpena proposatzea.
- d) Etxez etxeko laguntzaileei ikusketak eginez, kasu bakoitzaren aldizkako jarraipena egitea

- e) Zerbitzuaz baliatzen direnen etxeetara bisitak eginez, kasuaren jarraipena egitea.
- f) Etxez etxeko laguntzaileei zein zerbitzuaren erabiltzileei, sortzen diren arazoei buruzko aholkua ematea, eta horiek konpontzeko dauden baliabideak eta irtenbideak eskaintzea
- g) Familiaren erantzunkizuna suspertu eta horren alde egitea, familai dagoen kasuetan, bai alderdi materialetan eta baita afektibo eta ekonomikoetan ere.
- h) Kasu bakoitzari behar bezala heltzeko asmotan, beste giza babes sistema batzuetako adituen arteko elkarlana bultzatzea
- i) Organo eskudunari dagokion txostena eskatzea. Txosten hori oinarritzat hartuta erabakiko da zerbitzua eskaintzea ala ez.

7. artikulua. Etxez etxeko laguntzailearen eginkizuna

- a) Kasu bakoitzeko zerbitzuaren arduradunak izendatutako eginkizunak eta lanak egitea, horretarako adierazitako helburuak lortzen saiatuz.
- b) Zerbitzuaren erabiltzaileen egoerari buruzko jarraipena egitea, zerbitzuaren arduradunari laguntza eskainiz
- c) Beraien eginbeharrak ondo bete ahal izateko, heziketa eta birzikleta kurtsoak egitea.
- d) Bereziki aztertu beharreko kasuetan salbu, etxez etxeko laguntzailea ez da zerbitzu erabiltzailearen familiartekoa edo bizikidea izango.

III. KAPITULUA. ZERBITZUAREN ERABILTZAILEAK

Honako hauek dira Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaz baliatu direnak: Lizartzan bizi izanik, araudi honetan ezrritako baldintzak bete eta euren autonomia mugatzen duten egoeretan dauden pertsona edo familiak.

8. artikulua. Erabiltzaileen sailkapena

Ezgaitasuna izanik, ondorioz, zerbitzuaz balia daitezkeenak ondoko talderen batean sailkatuta egon beharko dira:

- a) Hirugarren adinekoa izatea (65 urtetik gorakoak)
 - Bakarrik edo beste adineko pertsona batzuekin bizi diren adinekoak, etxeko lanetarako zailtasunak edo ezgaituta daudenak, edo eta norbere zaintzarako laguntza beharrean daudenak.
 - Senideekin bizi diren adinekoak, ezgaitasuna, lana, karga handiegia edo familia giro txarra dela eta, norbere zaintzarako laguntza behar dutenak.
- b) Gutxitu fisikoak, psikikoak eta sentsozialak, beraien ezgaitasunagatik etxeko lanak egiteko edo norbere zaintzarako laguntza pertsonala behar dutenak.
- c) Osasun mentala: Mediki interbentzio edo terapeutikoren bate osagarri gisa, laguntza pertsonala edo etxeko behar dutenak.
- d) Gaixotasun terminalak dituzten pertsonak
- e) Gaixotasun edo zauriren bat daukaten pertsonak, eta ondorioz, denboraldi batez besteen laguntza behar dutenak.
- d) Giza arazo nabarmeneko familia edo pertsona helduak, beraien mugapen kultural edo pertsonalek pertsonaren garapen egokirako bizimodu osasun gaitzak sortzen dituztelarik.
- e) Adinez txikikoak edo behar bezala zaindu gabe dauden pertsonak

- f) Arrisku handiko egoeran dauden haurdunak
- g) Tratu txarrek eragindako haurdunak.
- h) Araudi honetan jasotako helburu sozialetan sartzen direnak.

9. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

- a) Araudi honetan erabiltzaileentzat adierazitako diru-ekarpenetarako irizpideen arabera dagokion diru-ekarpena ordaintza hileroko Udalari.
- b) Udal Gizarte Zerbitzuetan jakinaraztea laguntza onartutako hurrengo egunetan, laguntza onartu zitzaion datan kontutan hartutako egoerarekiko, bere egoera ekonomikoan, ezgaitasunean, bizikidetzan gertatutako edozein aldaketa.
- c) Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea zerbitzuaren funtzionamendu onean eragina duten gertaera guztiak
- d) Etxeko laguntzailearen esku jarri beharko dira, izendatutako etxeko lanak edo pertsona berari dagozkion lanak egiteko behar diren tresna eta material guztiak.

IV. PRESTAZIOAK ETA ZERBITZUAREN MAIZTASUNA

Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren eginkizun nagusia etxeko lanetan laguntzea da, hau da, zerbitzuaren erabiltzailea zaintzea eta garbitzea. Zerbitzu hau, erabiltzaileak bere kabuz egin ezin dituen lanak egiteko erabiliko da, eta beti ere, bultzatu egin beharko dira erabiltzaileak berak dituen gaitasunak.

Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren baitan, honako eginkizun nagusi hauek sartuko dira:

10. artikulua. Pertsonari berari egin beharrekoak

- a) Zerbitzuaren erabiltzailearen kontura zenbait gestio txiki egitea, esaterako, pentsioa kobratzea, ordainketak etxeratzeko kontu bat irekitzea, etxeko konponketak egiteko teknikoari deitzea, ea.
- b) Ohetik edo aulkitik altxatzen laguntzea, janzteko, eranzteko, jateko edo garbitzeko laguntza ematea.
- c) Ohean dauden pertsonak badira, izarak lehor edukitzea, garbiak eta zimurrik gabe. Gorputzaren jarrerak aldatzea.
- d) Etxeko eskailerak igotzen eta jaisten, edo irteera edo desplazamendu motzetan laguntzea, beti ere, irteera horiek aisialdiko ekintzak ez badira.
- e) Medikuak agindutako botika arruntak ematea, eta botika horien jarraipena egitea, beti ere, zaharraren familiakko edo hurbilekoren batek zeregin hori behar bezala bete ezin badu.
- f) Erregimena egiten badu, ondo egiten duela ziurtatzea.
- g) Erabiltzailearen egin, konpainia egin, elkarrizketa eman eta berarekin komunikatu.
- h) Aisialdiko jarduerak antolatzea

11. artikulua. *Etxean egin beharreko eginkizunak*

- a) Etxea garbitzea. Ez da garbiketa sakonik egingo
- b) Ohea egin eta aldatzea
- c) Jarritako dieten arabera janaria prestatzea
- d) Arropa garbitzea eta lisatzea

- e) Eguneroko janaria egiteko erosketak egitea
- f) Eguneroko arroparen konponketa errazak egitea
- g) Etxean egin beharreko konponketez jabetzea, eta etxeko konponketa txikietan laguntzea.

12. artikulua. Aurrezaintza eta heziketa izaerako zerbitzuak

- a) Ohiturak egokitzeko heziketa pedagogikoa eskaintzea: elikadura, garbitasuna eta ordutegien inguruko ohitura egokiak sustatzea.
- b) Etxeko administrazioaren inguruko jarraipena, beti ere, heziketa ikuspuntu batetik egiten baldin bada.
- c) Pertsonari edo familiari bideratutako heziketa lana, etxeko lanei eta seme-alaben heziketa ohiturei dagokienez
- d) Ikastea helburua duten etxeko lanetan laguntzea.

13. artikulua. Zerbitzuan sartzen ez diren prestazioak

- a) Zerbitzuaren erabiltzailea pertsona bakarra bada, Familiar Langileak ez die laguntzarik emango familiako edo hurbileko gainontzeko partaideei. Etxea ere ez du garbituko, baldin eta zerbitzuaren erabiltzailearekin zerikusi zuzenik ez badu.
- b) Familiar langileak ez ditu konponketa handi samarrak egingo, esaterako, sabaia pintatu, papera jarri, ea.
- c) Oro har, zerbitzutik kanpo geldituko dira, langileen osasuna arriskuan jar dezaketen eginkizun fisiko guztiak

- d) Bereziki galarazten da osasun arloko eginkizunak egitea. Oro har, zerbitzua eskaintzen duten langileek ez dute prestakuntza berezia eskatzen duten eginkizunik burutuko; izan ere, zerbitzua eskaintzen duten profesionalak ez daude horretarako gertatuak. Adibidez: injekzioak jartzea, zundak jartzea edo kentzea.
- e) Zerbitzua, erabiltzaile bakoitzarik jarritako ordutegian bakarrik eskainiko da. Zerbitzua ez da inoiz gaez eskeiniko.
- f) Gizarte Zerbitzue Sailak erabakitzen dituen guztiak

14. artikulua. Zerbitzuaren maiztasuna

- a) Zerbitzua astelehenetik ostirala bitartean eskainiko da.
- b) Eman behar den zerbitzuaren ordutegiak, egunean edo egun natural bakoitzean, bi ordu gehenezko muga ez du gaindituko

Ordu kopuru hau gainditzeak esan nahi du, zerbitzua ez dela aski erabiltzailearen beharrei aurre egiteko. Kasu horietan, beste konponbideren bat proposatu beharko da.

V. KAPITULUA. PROZEDURA

15. artikulua. Zerbitzuaren eskaera

Erregelamendu honetan araututako zerbitzuak behar dituzten pertsonak Lizartza Udaleko Gizarte Zerbitzuetan eskaera bat egin beharko dute, bertan zerbitzua eskatzeko zein arrazoi dituzten adieraziz.

16. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak

- Eskabidea, zerbitzu-eskaria zergatik egiten duen ere adierazi beharko da.

- Eskatzailearen identifikazio agiriaren kopia (ENA, NAN, Pasportea, ...)
 - Sakontzen balorazioa.
 - Mediku txostena, daukan ezgaitasuna eta behar duen tratamendua zehaztuz.
 - Osasun kartilla
 - Lizartza Udaleko Errolda eta Elkarbizitza ziurtagiria
 - Indarrean dagoen urteari dagokion zerbitzuaren erabiltzaile eta familia unitatearen diru-sarreraren ziurtagiria: nominak, pentsioak, ...
 - Zerbitzuaren erabiltzaile eta honen familia unitatearen azkeneko Errenta aitorenaren fotokopia. Aitorponik egiten ez baldin bada, Foru Aldundiaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, errenta-aitorpena egiteko obligaziorik ez dagoela egiaztatzeko.
 - “Datuen alta/Hirugarren interesatua” agiria betea
- * Familia unitatea kontzeptua: Ezkontideak edo erabiltzailearekin horren antzeko harremanak dituen pertsoanrenak, beren kargupeko adingabe eta ezinduak, eta judizialki ezinduak diren eta guraso aginte luzatu edo birgaitupean dauden adin nagusikoak.

17. artikulua. Gizarte Txostena

- a) Lizartza Udaleko Gizarte Zerbitzuko Gizarte Langileak aztertuko du eskari bakoitza. Horrek dagokion txostena egingo du, eta organo eskudunari igorriko dio. Txosten horrek eskatzailearen egoeran nolakoa en jakiteko lain daut jasoko ditu.
- b) Zerbitzua eskaintzeko eskariaren aldeko txostenak zera jaso beharko du:

- Eskatzaileari eman beharreko atentzio mota
 - Zerbitzu honek nolakoa izan behar duen, eta eskainitako zerbitzuak zein iraupen izan behar lukeen
 - Etxez etxeko laguntzaileak/Familiar langileak egin beharreko lanak
- c) Zerbitzua ematearen aurkako txostenak. Araudi honetan xedatutakoari jarraiki, arrazoitu egin beharko da zergatik ukatu den zerbitzu hori.

VI. KAPITULUA. ZERBITZUA EMATEA, KENTZEA ETA IRAUNGITZEA ERABAKITZEKO MODUA

18. artikulua. Ebazpena

- a) Udaleko organo eskudunak, gizarte txostenaren arabera, zerbitzua ematearen aldeko edo aurdado ebazpena hartuko du, interesatuak, eskabidez edo ofizioz, egindako eskaerari erantzuteko.
- b) Interesaturari, ebazpena hartzen denetik hmar eguneko epe barruan emango zaio horren berri. Horrek ez du esan nahi zerbitzua berehala emango zaionik, itxaron zerrenda kontuan eduko behar baita.

19. artikulua. Zerbitzua ukatzea

Zerbitzua emateko eskabideak ondorengo arrazoiern batengatik ukatu ahal izango dira:

- a) Eskatutako baldintzak ez betetzea
- b) Zerbitzua beste erakunderen baten ardurapekoa izatea
- c) Lehentasun handiagoko kasuak egotea

d) Eskatzen den dokumentazio guztia behar bezala ez aurkeztea

e) Behar bezala arrazoitutako beste edozin arrazoi

20. artikulua. *Eskaera berriz aurkeztea*

Eskatutako baldintzak ez betetzeagatik ezezkoa jasotzen duten eskaerak ez dira berriz aztertuko, eskatzailearen egoera nabarmen aldatzen ez den bitartean. Eskaera dokumentazio guztia behar bezala ez aurkezteagatik ukatu baldin bada, eskaria berriz ere aztertu ahal izango da.

21. artikulua. *Zerbitzua iraungitzea*

Jarraian zehaztutako arrazoiren bat gertatzen baldin bada, zerbitzua iraungi egingo da, eta ondorioz, erabiltzaileari baja emango zaio:

a) Asistentzia denbora gehiagoz behar ez izatea

b) Heriotza

c) Egoitzan sartzea

d) Beste udalerrri batera joatea

e) Zerbitzuari uko egitea

f) Zerbitzuaren kostua ez ordaintzea

g) Zerbitzuaren emakida erabakitzen den momentuan, ezarritako betebeharrak ez betetzea

h) Zerbitzuaren borondatezko baja

- i) Erabiltzailea bere etxean ez dagoenean oporreatatik edo 30 egun natural baino gehiagotarako beste etxea batera joan denean, zerbitzua amaitutzat emago da, eta berriro zerbitzua nahi izanez gero, dagokion eskabidea aurkeztu beharko du.
- j) Etxean ez dagoenean, justifikatutako medikoaren edo ospitaleko tratamenduengatik, ez da zerbitzua amaitutzat emateko kasutzat hartuko.
- k) Giza Zerbitzuetako Batzordearen ustez, behar bezala oinarritutako beste edozein arrazoi.

VII. KAPITULUA. FINANTZAKETA

22. artikulua. *Finantzaketa*

Zerbitzuaren urteko finantzaketa honako diru iturri hauen bidez egingo da:

- a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-ekarpena, adin nagusiko ezinduentzako erabiltzaileen kasuetan.
- b) Udalaren diru-ekarpena, gai diren erabiltzaileen kasuetan
- c) Erabiltzailearen diru-ekarpena

23. artikulua. *Erabiltzailearen diru-ekarpena*

Araudi honetan agertzen denaren arabera, zerbitzuaren erabiltzaileak, ahal duten neurrian, behartuta daude ezarritako prezioa ordaintzera. Zerbitzuari hasiera emateko, nahitaez, baremoaren arabera onartutako diru kopurua ordaindu beharko da.

Jarraian aipatzen diren prozeduren eta irizpideen arabera finkatuko da zerbitzuaren kostea (ezarritako prezio publikoa) finantzatzeko erabiltzaileek egin beharreko ekarpena:

a) Familia edo elkarbizitza unitatea:

Eskainitako Etxez-etxeko Zerbitzua ondoko kide hauen baliabide ekonomikoak baloratuko dira:

- Ezkontideak edo erabiltzailearekin horren antzeko harremanak dituen pertsona, beren kargupeko adingabeak, eta ezinduek eta judizialki ezinduak diren eta guraso-aginte luzatu edo birgaitupean dauden adin nagusikoak

b) Diru ekarpena

Erregelamendu honen ondoretarako, erabiltzailaren ahalmen ekonomikoa kalkulatu da. Balorazio hau egiteko ondorengo osagai hauek kontutan hartuko dira: Errenta, ondarea eta familia unitatea osatzen dutenean, elkarbizitza unitatea osatzen dutenen kide kopurua.

Bai errenten, bai ondare higigarrien kasuan, familia edo elkarbizitza unitatea osotasunean hartuta egingo da kalkulua, eta hartara, bakoitzari ezarri beharreko irabaziak kalkulatu ahal izango dira.

- Errentatzat joko dira famili unitatearen diru sarrera guztiak, diru iturriak honako hauek izanik:

a) Lan etekinak, horren barne egonik pertsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak, edozein erregimen dutela ere.

b) Kapital higigarria zein higiezinaren etekinak

c) Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.

Balio horien zenbatespena egiteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak ezarritako arauari jarraituko zaie.

- Kapital higigarri nahiz higiezin guztia hartuko da ondareztat. Ondarearen estimazioa egiteko, Ondarearen gaineko Zergak ezarritako arauari jarraituko zaie.

Kapital higigarritzat honako hauek joko dira: Kontu korranteetako nahiz epekako kontuetako gordailuak, inbertsio fondoak eta pentsio fondoak, balio higigarriak, bizitza aseguruak eta aldi baterakko edo biziarteko errentak, artelanak, antzinateko gauzak, bitxiak eta bestelako gauza baliotsuak.

Kapital higieztatzat jotzen da landa eta hiri izaerako ondasunek osatzen dutena.

- Ohiko etxebizitzatzat jotzen da erabiltzaileak ohiko bizileku daukan bere titularitateko etxea.

Diru ahalmenari buruzko datuei buruz gezurrak esateak edo haiek ezkatutzeak zerbitzuaren prestazioa aldi baterako edo behin betiko etetea ekar dezake.

Erabiltzaileak eta bere elkarbizitzako unitateak ondare higiezinik baldin badute, ohiko etxebizitzaz gain, erabiltzaileak osorik ordainduko du etxe laguntza zerbitzua.

Erabiltzailearen eta elkarbizitzako unitatearen azken ondare higigarria per capita 30.000 €koa baino handiagoa baldin bada, etxe laguntza zerbitzua gehiegizko horrekin ordainduko da, ordura artekoa libreki erabiltzeko gordeko baita.

Ondareko diru baliabide horiek agortzen direnean, errentari buruz ondorengo puntutan dioenaren arabera ordainduko da zerbitzua.

Erabiltzaileak nahiko diru baliabiderik ez duela zurituz gero, diru ekarpena egitetik salbuetsiko zaio.

24. artikulua. Diru-ekarpenaren kalkulua

a) Libreki erabiltzeko diru kopurua.

Erabiltzaileak Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren (LGS) % 100 izango du libreki erabiltzeko, familia unitatea berak bakarrik osatzen badu. Familia unitatea pertsona bat baino gehiagoz osatuta badago, bigarrenengoarengatik LGSren % 40 erantsiko zaio kopuru horri, eta % 30 gainerako pertsona bakoitzarengatik.

b) Familia unitatearen hileko errenta erabilgarria

Familia unitatearen hileko errenta erabilgarria ateratzeko, erabakita dauden zerbitzuko kontzeptuen guztiko zenbatekoari libreki erabiltzeko kopurua kenduko zaio. Aparteko gastuak ere kendu ahal izango dira, horiek behar bezala zuritzen badira.

c) Erabiltzailearen eta Udala/Gizarte Politikarako Departamenduaren diru-ekarpena

Bakoitzari dagokion errenta erabaki ondoren, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren orduko prezioa kontutan izanik, ezarritakoa da baremoa (ikus 1.go eranskina)

25. artikulua. Tarifa

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamenduak urtero erabakiko du Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren orduko gehieneko tarifa. Prezio horiek zehazterakoan merkatuko prezioak lortzera jo behar da, oinarritzat hartuta, betiere,

Gipuzkoako lurralde historikoko ekonomiaren egoera orokorra eta errenta nahiz erretiro sarien mailak.

26. artikulua. Diru-ekarpenak eguneratzea

Urtero berriskupenak egingo dira, erabiltzaileen diru ekarpenak egunatzeko, beti ere, araudi honen VII. Kapituluaren ezarritako baldintza eta baremoen arabera.

Epe txikiagotan ere berrikuspenak egin ahal izango dira, erabiltzailearen egoera ekonomikoak aldaketak izango balitu, haren diru-ekarpena arautegi honetan ezarritakora egokitzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

1. Ordezko zuzenbidea

Araudi honetan aurrikusi gabe dagoen guztia, indarreko legeria eta Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako aholku eta arauak menpe egongo da.

2. Arauen garapena

Lizartzako Udalak araudi honen edukia garatu ahal izango du, Gizarte Ongizate batzordeak proposatutako instrukzio edo zirkularren bidez.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Araudi hau onartu aurretiko erabiltzaileen diru-ekarpena berrikustea.

Araudi honen diru-ekarpenak zerbitzu-eskaera berriak egiten direnetik hasiko zaizkie aplikatzen erabiltzaileei, indarrean sartzen denetik aurrera.

AZKEN XEDAPENAK

Araudi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

1.go eranskina. Erabiltzailearen eta Udala/Gizarte Politikarako Departamenduaren diru-ekarpena.

<i>Per capita irabaziak, hileko</i>	<i>Libreki erabiltzeko (LGS)</i>	<i>Administrazioaren ekarpena</i>	<i>Erabiltzailearen ekarpena</i>
LGS % 100 arte	% 100	% 97	% 3
LGS % 101 - % 125	% 100	% 92	% 8
LGS % 126 - % 150	% 100	% 85	% 15
LGS % 151 - % 175	% 100	% 76	% 24
LGS % 176 - % 200	% 100	% 65	% 35
LGS % 201 - % 225	% 100	% 52	% 48
LGS % 226 - % 250	% 100	% 39	% 61
LGS % 251 - % 275	% 100	% 26	% 74
LGS % 276 - % 300	% 100	% 13	% 87
LGS % 300 >	% 100	0%	% 100

5.- BAKE EPAILEAREN IZENDAPENA

Botere Judizialeko Lege Organikoko 101 artikulua xedatzen duenaren arabera, Udalbatzarrak Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatu behar ditu, ondoren Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Zuzentza-Auzitegi Gorenak izendapenak egiteko.

Kontutan hartuaz, iragarkien bidez, jendaurrean egon dela, izena emateko epea zabalduaz eta epe horretan ez dela inor agertu.

Kontutan harturik, aurrez Bake Epaile postua betetzen zuenak, hau da: HERMENEGILDO IRAZU GOGORZA prest agertu dela, bertan jarraitzeko, proposatzen da:

Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Zuzentza-Auzitegi Gorenari, Bake Epaile posturako, HERMENEGILDO IRAZU GOGORZA Jauna izendatzeko proposamena luzatzea.

Eztabaidatu ondoren, proposamena, aho batez onartu da.

6.- TOKIKO AGENDA 21

“Rio de Janeiron (Brasil) 1992an egin zen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzian, Agenda 21 estrategia orokorraren baliabide gisa onartu zela, planetaren degradazioa geldiaraztea lortuko duen garapen iraunkorraren ereduarentzako lagungarri izango diren ekonomia-gizarte-, kultur eta ingurumen-politikak garatzeko. Garapen iraunkorra sustatzeko jarduerak duten garrantzia kontuan hartuta, Agenda 21en 28. atalak udal-administrazioen, hiritarren, gizarte-erakundeen eta enpresen arteko adostasunaren eta horien arteko elkarrizketaren emaitza gisa Tokiko Agenda 21 ezartzeko deialdeia egiten du.

Ingurumen-arazo orokorrak konpontzeko giltzarriak leku eta denbora aldetik biderkatzen diren tokiko jarduerak dira. Horregatik, Euskadiko udalerrietan Agenda 21ak ezarri eta abiaraztea helburu nagusietako bat da Euskadiko ingurumen-politikan; hain zuzen, ingurumen-politika hori 2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian ari da definitzen.

Johannesburg-en egin zen Lurraren Goi-bileran, Tokiko Agenda 21 ezartzearen aldeko apustua berretsi zen, hitzak ekintzen bidez gauzatzeko biderik eraginkorrenak baitira.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Departamentuak IHOBEren bitartez eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, UDALTALDE 21 edo hainbat udalen artean osatutako lan-taldeen sorrera

bultzatzen dute, udalerrri hauetan Agenda 21 ezartzea errazteko helburuarekin. Horrela udal hauek IHOBE, Foru Aldundia, Tolomendi eta udaletxe interesdunen artean formalizatutako Lankidetzaren Hitzarmenetik eratorritako formakuntza eta laguntza bateratuaren onuradunak izango dira.

Aurretik azaldutakoa oinarritzat hartuta, Udalbatzaren Osoko Bilkurak, eta aho-batez ondorengoa onartzen du:

AKORDIOA

Udaltalde 21 bat sortzeko eta martxan jartzeko konpromezua hartzea, Tokiko Agenda 21 modu bateratuan hainbat udaletan ezartzeko, eta horretarako, epe laburrean IHOBE, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Tolomendirekin Lankidetzaren Hitzarmena sinatzeko.

Akordio hau, ondoren hartuko diren erabakietara baldintzatzen dugu; hau da: zenbat herrik hartzen duten konpromezua, kostua e.a.

7.- ZERGA ETA TASEN ALDAKETA

UDAL UR HORNIDURA TASA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

2004 urtean onartu ziren tarifa berriak eta, hortik aurrera, urtez urte, urteko IPC.aren %a igotzea erabaki zen.

2005 urteko Udal Ur Horniduraren kostuak aztertuz gero, defizitariora dela konturatzen gara.

Hori dela eta, Udal Ur Hornidura Tasaren tarifak era honetan aldatzea, proposatu du:

UR ERREZIBOAK

ETXEAK

Hiruhilabetean **36 m³ x 0,21 €/m³**
 36 m³tik gora – 0,32 €/m³

TABERNAK, DENDA eta INDUSTRIAK

Hiruhilabetean **45 m³ x 0,32 €/m³**
 45 m³tik gora – 0,44 €/m³

INFRAESTRUKTURA KANONA

Hiruhilabetean **6,00 €errezeboko**

KONTAGAILUEN MANTENIMENDUA

Hiruhilabetean **1,30 €errezeboko**

SAREARI LOTUNEA

Lotune Eskubidea: **50,00 €**
Berlotune Eskubidea: **100,00 €**

Proposamen hau onartzeak ez du esanahi, Udalak Udal Ur Hornidura zerbitzuarekin irabazirik edo kitaturik geratzen denik, zerbitzu horrek defizitarioak izaten jarraitzen duelako, kostuak honela gelditzen direlarik:

TARIFA HAUEN BIDEZ REKAUDAZIOA

KONTZEPTUA		GUZTIRA
Ura – Etxeak	261 kontagailu x 36 m ³ x 0,21 x 4	7.892,64
Industriak	13 kontagailu x 45 x 0,32 x 4	748,80
Infraestruktura Kanona	274 kontagailu x 6,00 x 4	6.576,00
Kontagailuen Kanona	274 kontagailu x 1,30 x 4	1.424,80
SARRERAK GUZTIRA		16.642,24
GASTUEN AURRIKUSPENA		
Gipuzkoako Urak	Ura Kontsumoa – 30.000 m ³ x 0,42 €/m ³	12.600,00
	Infraestruktura Kanona	5.500,00
	Kalitate Kontrola	444,00
	Bestelako Mantenimenduak	2.000,00
GASTUAK GUZTIRA		20.544,00
DIFERENTZIA		- 3.901,76

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da.

ZABOR ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOAK ETXEZ ETXE BILTZEAGATIKO TASA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

2004 urtean onartu ziren tarifa berriak eta, hortik aurrera, urtez urte, urteko IPC.aren %a igotzea erabaki zen.

2005 urteko Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe biltzeko zerbitzuaren kostuak aztertuz gero, defizitarioa dela konturatzen gara.

Hori dela eta, Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeko Tasaren tarifak era honetan aldatzea, proposatu du:

Etxebizitzak habitatuak eta hutsak- Hiruhilabetean **13,00,- €**
 Industriak - Hiruhilabetean **22,00,-€**

Proposamen hau onartzeak ez du esanahi, Udalak Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeko zerbitzuarekin irabazirik edo kitaturik geratzen denik, zerbitzu hori defizitarioa izaten jarraitzen duelako, kostuak honela gelditzen direlarik:

PROPOSAMENA	2005	SARRERAK
Zaborrak – Etxeak – 318 Errezibo	13,00 €/hiruhilabetean	16.536,00
Zaborrak – Industr – 11 Errezibo	22,00 €/hiruhilabetean	880,00
GUZTIRA		17.416,00

AURRIKUSPENAK	URTEA	SARRERAK	IRTEERAK	DIFERENTZIA
ZABORRAK	2006	17.416,00		
GMSM Zabor Bilketa			11.534,33	
Zabortegira Zaborrak			1.000,00	
Tolosaldeko Mankomunitatea			13.900,28	
GUZTIRA		17.416,00	26.434,61	9.018,61

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN tramo eta tarifak aldatzea.

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Udal honek onartuak ditu, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergagatik kobratu behar ziren tasak.

2004 urtean onartu ziren tarifa berriak eta, hortik aurrera, urtez urte, urteko IPC.aren %a igotzea erabaki zen.

Abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 11. artikulua, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Tramo eta Tarifak berriak ezarri ditu, 2006 urtetik aurrera aplikatu behar direnak.

Horren arabera, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Tramo eta Tarifak honela geldituko lirateke:

TRAMOAK ETA TARIFAK – 3,2% IPC ERANTSITA

IBILGAILU MOTA	TRAMOAK	2005 URTEA	3,20% IPC	2006 URTEA
TURISMOAK	9 ZF. Baino gutxiago	27,40	1,50	28,90
	9tik 11,99 ZF. bitarte	54,80	1,75	56,55
	12tik 13,99 ZF. bitarte	91,30	2,95	94,25
	14tik 15,99 zk. bitarte	127,85	4,10	131,95
	16tik 19,99 ZF. bitarte	165,00	5,30	170,30
	20 ZF. gorakoak	200,90	6,45	207,35
AUTOBUSAK	21 eserlekitik beherakoak	126,60	40,05	130,65
	21etik 50 bitartekoak	180,25	5,75	186,00
	50etik gorakoak	225,35	7,20	232,55
KAMIOIAK	1000tik kg.ko erabilgarritik behera	64,25	2,05	66,30
	1000tik 2999 bitartekoak	126,60	4,05	130,65
	2999tik 9999 bitartekoak	180,25	5,75	186,00
	9999tik gorakoak	225,35	7,20	232,55
TRAKTOREAK	16 ZF beherakoak	26,85	0,85	27,70
	16tik 25 bitartekoak	42,20	1,35	43,55
	25tik gorakoak	126,60	4,05	130,65
REMOLKE ETA ERDI REMOLKEA	750tik 1000 bitartekoak	26,85	0,85	27,70
	1000tik 2999 bitartekoak	42,20	1,35	43,55
	2999tik gorakoak	126,60	4,05	130,65
ZIKLOMOTOREAK		6,70	0,20	6,90

MOTOZIKLETAK	125 c.c. bitartekoak	6,70	0,20	6,90
	125tik 250 bitartekoak	11,50	0,35	11,85
	250tik 500 bitartekoak	23,05	0,75	23,80
	500tik 1000 bitartekoak	46,05	1,50	47,55
	1000tik gorakoak	92,05	2,95	95,00

Ibilgailuen Gainerako Zergaren Tarifa Aldaketa, aho batez onartua izan da.

8.- ALKATETZA DEKRETUAK

ARAU HAUSTENGATIK SANTZIO ESPEDIENTEAK

MARIANO URBIZU – PINU LANDAKETA – 2005-03-23 – 180 zkia.

GAIA.- Lizartzako Arau Subsidiarioen 1 Poligonoa 27. Partzelan egindako legez kanpoko pinuen landaketak direla eta hauek, ateratzeko agindua.

IKUSIZ.- 2005eko martxoaren 9an, Udal arkitektuak egindako txostena.

KONTUAN HARTUAZ.- 2005eko martxoaren 9an, Lizartzako udalean salaketa jaso zela Mariano Urbizuren aurka, Lurzoru Hiritarrezinean kokatutako 1. Poligonoa, 27. Partzelan pinuak atera eta berriak landatu izanagatik.

KONTUAN HARTUAZ.- Zuhaitzen ateratzeek eta landaketek udal baimena behar dutela, eta gaur egun Lizartzako Arau Subsidiarioen berrikusketa burutzen ari dela, eta horregatik lurzoru hiritarrezinezko lizentziak etenda daudela, eta dokumentuari lehenengo onarpena ematen zaionean, lehenengo araudia eta lehen onarpenean jasotzen dena betetzen duten eskarietako baimenak eman ahal izango direla soilik.

KONTUTAN HARTUAZ.- Indarrean dauden Lizartzako Planeamenduko Arau

Ordezkatzaileetan (21. bist art.)ren arabera, aipatutako gunean, bertako ez diren hosto iraunkorra duten zuhaitz moten landaketa masiboa, debekaturik dagoela, eta Arau berrikuspen dokumentuaren arabera, landaketak egindako eremua nekazaritza eta abeltzaintzarako zona eta landazabalean kokatzen dela, herrigunearen inguruan, herriko baserri guztiak hartzen dituela bere baitan eta bertan bertako hostozabalen landaketa onartzen dela soilik, pinuen landaketa debektuta dagoelarik.

KONTUTAN HARTUAZ.- Egindako landaketak indarrean dagoen araudiaren arabera legeztatzerik ez dagoela.

KONTUTAN HARTUAZ.- 1978ko ekainaren 23an onartutako 2187/1978 Errege Dekretuaz onartutako Hirigintza-Disziplina Erreglamenduko 90.artikuluaren arabera.

KONTUTAN HARTUAZ.- Toki Erregimenaren Oinarri Legearen 21.1) eta 68.1 artikulua xedatutakoaren arabera.

ERABAKI DUT:

- 1.- Mariano Urbizu Zabala jaunari hilabeteko epea ematea, landatutako pinua atera deza. Honela egiten ez bada, Lizartzako Udalak ateratzea, exekuzio subsidiarioan, gastuak interesdunaren gain joango direlarik.
- 2.- Hirigintza arloan egindako arau-haustearen ondorioz zigor-espedientea irekitzea eta arau hauste horren arduraduntzat jotzea, Mariano Urbizu Zabala jauna.
- 3.- Zigor prozeduran instrukzio-egile izendatzea Ana Jesus Zabala Garmendia andrea, udalaren idazkaria.

Aditzera ematea espedientea ebazteko eskumena duen organoa udalaren Alkate jauna dela, Lurzoruraren araubideari eta hiri antolamenduari buruzko premiazko neurrien martxoaren 6ko 5/1998 Legeko 11. artikuluan ezarritakoarekin bat.

4.- Ebazpen hau eta horren oinarritzat erabiltzen den txosten teknikoa jakinaraztea Mariano Urbizu Zabala jaunari. Halaber, aditzera ematea 15 egun balioduneko epea izango duela ebazpen honen jakinerazpena egiten denetik, nahi diren alegazio eta agiriak aurkeztu ahal izateko, eta nahi bada legeak aurrikusten dituen frogen proposamena egiteko.

5.- Hilabeteko epea ematea, egindako lanak legeztatzeke udalaren aurrean.

6.- Interesatuei jakinaraztea azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 116. artikulua ezarritakoaren arabera, erabaki hau administrazio bidean irmoa eta behin betikoa denez, haren aurka administrazio-auzi gaietako helegitea jar daiteke, beti ere bi hilabetetako epean, jakinerazpen honen egunetik hasita kontatzen, eta Donostiako Epaitegiaren aurrean.

Dena den eta aipatutako artikulua arabera aukerako berraztertzeke errekurtsioa jar daiteke, Alkatetza honen aurrean, jakinerazpen honen egunetik hasita, hilabete baten epean.

MANIPULADOS DEL ARAXES – 2005-03-23 – 196 zkia.

LIZARTZAKO UDALAREN ALKATETZA-UDALBURUTZAREN EBAZPENA, MANIPULADOS DEL ARAXES S.A.RI, HUGAR S.A.RI ETA JORGE LIZARRIBAR JAUNARI IREKITAKO ZEHAPEN-ESPEDIENTEARI BURUZKOA, MANIPULADOS DEL ARAXES ZABALTZEKO LANAK BEHARREZKO UDAL BAIMENIK GABE EGITEAGATIK.

IKUSIRIK Egindako jarduketa guztiak, eta azaldutako gertakarien ondorioz eta goian aipatzen diren ezarri beharreko arau-aginduei jarraiki.

JAKINIK Egokiak diren lege-jarduketa guztiak burutu direla, eta legeak ezarritako zehapen-prozedurak aurrera egin duela.

JAKINIK Legeak ezarritako moduan interesdunei entzun zaiela eta José Ignacio Galarraga jaunak alegazio-idazki bat aurkeztu duela, interesdunak salbuesteko, eta adierazteko interesdun horiek ez dutela erantzukizunik egotzitako gertaeretan, eta berau norbaiti egoztekotan, Sektorearen sustatzaileari, URBA UTEri, egin beharko litzaiokeela.

JAKINIK Egindako jarduketak ikusita, ondorengoek egindako arau-haustearen ondoriozko erantzukizunak frogatuta geratu direla: HUGAR merkataritza-enpresak (baimenik gabe burutu diren lanen eraikitzaile den aldetik) eta Jorge Lizarribar obren zuzendari teknikoak (proiektuaren ingeniari zuzendari den aldetik eta lanak zuzentzeagatik) eta Manipulados del Araxes merkataritza-enpresa (egindako pabilioien sustatzaile eta jabe den aldetik). Ez da jaso URBA UTEren jarduketa Manipulados del Araxes pabilioia zabaltzeko lanak egiteari dagokionez. Hala ere, enpresa horri espedienteak zabaldu zaizkio Lizartzako U.1 Sektorean egindako hiritartze-lanak direla-eta.

AINTZAT HARTURIK.- Apirilaren 9ko 1346/76 Errege Dekretuko 178. eta 184. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa (Lurzoruaren Erregimenari eta Hiri Antolaketari buruzko Legearen Testu Bateratua onesten duena) eta 2187/1978 Errege Dekretu bidez onetsitako Hirigintzako Diziplinari buruzko Araudian ezarritakoa.

AINTZAT HARTURIK Ekainaren 23ko 2187/78 Errege Dekretuan ezarritakoa (Lurzoruaren Erregimenaren eta Hiri Antolamenduaren Legea garatu eta ezartzeko Hirigintza Diziplinaren Arautegia onesten duena).

AINZAT HARTURIK Abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren (zehatzeko ahala erabiltzeko Prozeduraren Araudia onesten duena) 18. eta 19. artikuluetan ezarritakoa.

HAUXE ERABAKI DUT:

Lehenik: Manipulados del Araxes enpresari, HUGAR enpresari eta obraren zuzendari den Jorge Lizarribar jaunari egozten zaizkien egintzak frogatutzat ematea; gertakari horien ondorioz zehapen-prozedura hau irekitzea erabaki zen. Eta egintzak honako hauek izan ziren: Manipulados del Araxes enpresa zabaltzeko lanak egin zirela, beharrezko udal-baimenik izan gabe eta Lizartzako Arau Subsidiarioen U-1 Sektorea Urbanizatzeko Proiektua behin betirako onetsita egon gabe.

Bigarrenik: Lanen sustatzailea eta aipatutako egintzen erantzule zuzena den aldetik, Manipulados del Araxes merkataritza-enpresari, 4.000 euroko isuna jartzea zehapen moduan, Manipulados de Araxes zabaltzeko lanak beharrezko udal baimenik izan gabe egiteagatik.

Hirugarrenik: "HUGAR S.L." merkataritza-enpresari, obren enpresaria den aldetik eta aipatutako egintzen erantzule zuzena den aldetik, 4.000 eurotako isuna jartzea zehapen moduan, Manipulados de Araxes zabaltzeko lanak beharrezko udal baimenik izan gabe egiteagatik.

Laugarrenik: Manipulados del Araxes S.A. merkataritza-enpresari, egindako pabilioien sustatzaile eta jabe den aldetik, 4.000 euroko isuna jartzea zehapen moduan, udalaren baimenik izan gabe zabalpen lanak egiteagatik.

Bosgarrenik: Jorge Lizarribar jaunari 4.000 euroko isuna jartzea zehapen moduan, egitea agindu zitzaion proiektua ingeniari zuzendari

gisa bere gain hartzeagatik eta udal baimenik ez zuten lanak pertsonalki zuzentzeagatik.

Seigarrena: Ebazpen hau HUGAR S.L. merkataritza-enpresari, Manipulados del Araxes S.A. merkataritza-enpresari eta Jorge Lizarribar jaunari jakinaraztea eta beraiei aditzera ematea ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezaketela Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegian bi hilabeteko epearen barruan. Halaber, nahi izanez gero, ebazpena berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute ebazpen hori eman duen organoaren aurrean.

MANIPULADOS DEL ARAXES – 2005-05-18 – 316 zkia.

IKUSIRIK.- 2005eko Martxoaren 23an Alkatetza honek hartutako ebazpena, Manipulados del Araxes zabaltzeko lanak beharrezkoa den udal baimenik gabe egiteagatik CONSTRUCCIONES HUGAR S.L. merkataritza-enpresari, MANIPULADOS DEL ARAXES S.A., merkataritza enpresari eta JORGE LIZARRIBAR SANS Injenieru jaunari irekitako zigor-espeditentari buruzkoa.

JAKINIK.- Aipatutako ebazpenean ezarritakoarekin bat, CONSTRUCCIONES HUGAR S.L. merkataritza-enpresari, 4.000,00 €, MANIPULADOS DEL ARAXES S.A., merkataritza enpresari, 4.000,00 € eta JORGE LIZARRIBAR SANS Injenieru jaunari 4.000 €-tako isuna, jartzea erabaki dela.

JAKINIK.- Lizartzako Udalaren Alkatetzaren ebazpena irmo bihurtu dela administrazio-bidean.

AINZAT HARTURIK.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legearen 98. artikuluan xedatutakoa (azaroaren 27ko BOE, 285 zenbakiduna).

AINZAT HARTURIK.- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Diru-Bilketa Arautegian ezarritakoa. Aipatutako Arautegia apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen (apirilaren 29ko GAOn argitaratua) eta geroago maiatzaren 2ko 42/2000 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen).

Alkate-Lehendakari honek, HAU ERABAKI DU:

- 1.- CONSTRUCCIONES HUGAR S.L. merkataritza-enpresari, 4.000,00 €, MANIPULADOS DEL ARAXES S.A., merkataritza enpresari, 4.000,00 € eta JORGE LIZARRIBAR SANS Injenieru jaunari, 4.000,00 €-ko kopuruak likidatzea, behin betikoz, isun moduan.
- 2.- CONSTRUCCIONES HUGAR S.L. merkataritza-enpresari, MANIPULADOS DEL ARAXES S.A., merkataritza enpresari eta JORGE LIZARRIBAR SANS Injenieru jaunari adieraztea lehen aipatutako diru-kopuruak Udal Altxortegian sartu beharko dituztela, edo bestela ondorengo kutxan irekitako diru-bilketako kontuan:

KUTXA - 2101.0053.75.0002206308

Ebazpen honen jakinarazpena hilaren 1etik 15era bitartean jasotzen bada, dirua sartzeko epea jakinarazpena jasotzen den egunean hasi eta hurrengo hilaren 10ean edo hurrengo egun baliodunean amaituko da.

Jakinarazpena hilaren 16tik azkenera bitartean jasotzen bada, berriz, dirua sartzeko epea jakinarazpen egunean hasi eta hurrengo hilaren 25ean edo hurrengo egun baliodunean amaituko da.

Dirua sartzeko borondatezko epea bete ondoren, zorrak kobratzeko premiamenduzko prozedurari ekingo zaio.

3.- Ebazpen hau, CONSTRUCCIONES HUGAR S.L. merkataritza-enpresari, MANIPULADOS DEL ARAXES S.A., merkataritza enpresari eta JORGE LIZARRIBAR SANS Injenieru jaunari jakinaraztea eta aditzera ematea ebazpen honen aurka Administrazioarekiko Auzi Errekurtoa aurkez dezaketela Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, ebazpena jakinarazi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aurkera dute horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtoa aurkezteko Alkatetzari, ebazpena argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

ORKAIZTEGI ERAIKUNTZAK – 2005-06-08 – 357 zkia.

LIZARTZAKO UDALEKO ALKATETZA-LEHENDAKARIAREN EBAZPENA, ORKAIZTEGI S.L. ENPRESARI ETA KELE LASA AIESTARAN JAUNARI IREKITAKO ZEHAPEN-ESPEDIENTEARI BURUZKOA, LIZENTZIAN EZARRITAKOA BETE GABE ETA ONDASUN BABESTUAK ERAITSIZ LIZARTZAKO APEZTEGIA ETXEA BIRGAITZEKO LANAK EGITEAGATIK.

IKUSIRIK.- Egindako jarduketa guztiak, eta azaldutako gertakarien ondorioz eta goian aipatzen diren ezarri beharreko arau-aginduei jarraiki.

JAKINIK.- Egokiak diren lege-jarduketa guztiak burutu direla, eta legeak ezarritako zehapen-prozedurak aurrera egin duela.

JAKINIK.- Legeak ezarritako moduan interesdunei entzun zaiela eta Luis M^a Orkaiztegi Esnaola jaunak eta Kele Lasa Aiestaran jaunak bi alegazio-idazki aurkeztu dituztela, instrukzio-egileak proposatutako zehapena aldatu eta berau beren idazkian adierazitakoaren arabera ezartzea eskatzeko.

JAKINIK.- Alegazio-egileen ustez ezin dela ezarri Hirigintzako Diziplinari buruzko ekainaren 23ko 2187/78 Errege Dekretuko 86. artikulua, Apeztegi Zahar etxea ez delako ondasun arkeologikotzat jotako

eraikin edo orubea, eta ez dagoelako arkeologikotzat jotako gune batean. Hortaz, ez du babes berezirik jasotzea merezi. Gaineratu dute obrak hasi baino lehen azterlan arkeologikorik egin ez izana eta zuinketa-aktarik egin ez izana zigortu egin behar direla aipatutako Erregelamenduko 90. artikuluan ezarritakoa betez; horrekin zerikusia dute 54., 55. eta 63. artikuluek. Horiek horrela, izan duten jardute modu arduragabea hutsegite arintzat jo beharko litzateke eta zehapen txikiena jarri, kontuan izanik 55. artikuluan jasotako inguruabar aringarriak daudela, hau da, ez zutela kalterik egiteko asmorik, gertaerak izandako unean eraikuntzako greba zegoela eta horren ondoriozko inguruabarrak aintzat hartu behar direla eta, azkenik, arau-hausleek ez dutela jardute modu horretatik onurarik lortu. Horrenbestez, edozein kasutan, 2187/78 EDko 90. artikuluan aurreikusten den % 1a ezarri beharko litzateke.

JAKINIK.- Egindako jarduketak ikusita, Orkaiztegi S.L. merkataritza-enpresak, lizentziarik gabe gauzatu diren obren eraikitzaile, sustatzaile eta jabe izaki, eta Kele Lasa Aiestaran arkitekto jaunak, proiektua idatzi duen obren zuzendari tekniko izaki, egindako arau-haustearen ondoriozko erantzukizunak egiaztatuta geratu direla. Arau-haustea lizentzian ezarritako baldintzak ez betetzeagatik izan da, hots, zuinketa-aktarik ez egiteagatik eta azterlan arkeologikorik ez aurkezteagatik.

JAKINIK.- Gipuzkoako Arte eta Historiaren arabera interesgarriak diren elementuak, beheko solairuko arkua eta harria eta goiko solairuko egurrezko egitura, hain zuzen ere, eraitsi direla egiaztatu bada ere, ondasun horiek ez dute babes berezirik jaso euren izaera historiko edo arkeologikoarengatik. Eta, hortaz, bidezkoa da zigor-prozeduraren instrukzio-egileak egindako proposamena aldatzea, zehatutako ekintza areagotu edo arindu ahal duten inguruabarrak kontuan hartu gabe.

KONTUAN HARTUTA.-Apirilaren 9ko 1346/76 Errege Dekretuko 178. eta 184. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa (Lurzoruaren Erregimenari eta Hiri Antolaketari buruzko Legearen Testu Bateratua onesten duena) eta 2187/1978 Errege Dekretu bidez onetsitako Hirigintzako Diziplinari buruzko Araudian ezarritakoa.

AINZAT HARTURIK.- Ekainaren 23ko 2187/78 Errege Dekretuan ezarritakoa (Lurzoruaren Erregimenaren eta Hiri Antolamenduaren Legea garatu eta ezartzeko Hirigintza Diziplinaren Arautegia onesten duena).

AINZAT HARTURIK.- Abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren (zehatzeko ahala erabiltzeko Prozeduraren Araudia onesten duena) 18. eta 19. artikuluetan ezarritakoa.

AINZAT HARTURIK.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 98. artikuluan xedatutakoa (azaroaren 27ko BOE, 285 zenbakiduna).

AINZAT HARTURIK.- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Diru-bilketa Arautegian ezarritakoa. Aipatutako Arautegia apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen (apirilaren 29ko GAOn argitaratua) eta geroago maiatzaren 2ko 42/2000 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen.

HAUXE ERABAKI DUT:

Lehenik: Luis M^a Orkaiztegi Esnaola jaunak eta Kele Lasa Aiestaran jaunak aurkeztutako alegazioak zati batean baiestea eta horiei egotzitako gertakariak frogatutzat jotzea; gertakari horien ondorioz zehapen-prozedura hau irekitzea erabaki zen. Eta gertakariak honako hauek

izan ziren: lizentzian ezarritako baldintzak bete gabe Lizartzako Apeztegia Etxea birgaitzeko obrak egitea.

Bigarrenik: “Orkaiztegi S.L.” merkataritza-enpresari, obren enpresaria den aldetik eta aipatutako egintzen erantzule zuzena den aldetik, 4.500,00 €-ko isuna jartzea zehapen moduan, Lizartzako Apeztegieta Etxea birgaitzeko obrak lizentzian ezarritako baldintzak gabe egiteagatik.

Hirugarrenik: Kele Lasa Aiestaran jaunari 4.500,00 €-ko isuna jartzea zehapen moduan, egitea agindu zitzaion proiektua ingeniari zuzendari gisa bere gain hartzeagatik eta obrak udal lizentzian ezarritako baldintzak bete gabe pertsonalki zuzentzeagatik.

Laugarrenik: Orkaiztegi S.L. merkataritza-enpresari eta Kele Lasa Aiestaran jaunari LAU MILA eta BOSTEHUN (4.500,00) €-ko kopuru bana likidatzea, behin betikoz, isun moduan.

Bosgarrenik: Orkaiztegi S.L. merkataritza-enpresari eta Kele Lasa Aiestaran jaunari adieraztea lehen aipatutako diru-kopurua Udal Altxortegian sartu beharko duela, edo bestela ondorengo banketxean irekitako diru-bilketako kontuan:

2101.0053.75.0002206308

Hauxe izango da norberaren borondatez ordaintzeko epea:

Ebazpen honen jakinarazpena hilaren 1etik 15era bitartean jasotzen bada, dirua sartzeko epea jakinarazpena jasotzen den egunean hasi eta hurrengo hilaren 10ean edo hurrengo egun baliodunean amaituko da.

Jakinarazpena hilaren 16tik azkenera bitartean jasotzen bada, berriz, dirua sartzeko epea jakinarazpen egunean hasi eta hurrengo hilaren 25ean edo hurrengo egun baliodunean amaituko da.

Dirua sartzeko borondatezko epea bete ondoren, zorrak kobratzeko premiamenduzko prozedurari ekingo zaio eta % 20ko errenergua gehituko zaio.

Seigarrenik: Ebazpen hau Orkaiztegi S.L. merkataritza-enpresari eta Kele Lasa Aiestaran jaunari jakinaraztea eta beraiei aditzera ematea ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezaketela Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegian bi hilabeteko epearen barruan. Halaber, nahi izanez gero, ebazpena berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute ebazpen hau eman duen organo beraren aurrean.

MARIANO URBIZU – 2005-06-14 – 373 zkia.

IKUSIZ.- 2005eko martxoaren 21ean Alkatetzak luzatutako Dekretua, non, Mariano Urbizu Zabala jaunari, hilabeteko epea ematen zitzaion, 1 Poligonoko 27 Partzelan, landatutako pinuak ateratzeko, bestela ordezkatzeko egiteratze-eraz egingo zela, gastuak interesdunaren gain joango zirelarik.

IKUSIZ.- Udaleko zerbitzu juridikoekgai honi buruz luzatutako txostena.

KONTUTAN HARTUAZ.- Mariano Urbizu Zabala jaunak, Lizartzako Arauetan, azaltzen den 1. Poligonoko 27 partzelan, eginiko pinu landaketak, eta Lizartzako Planeamenduko Arau Ordezkatzaileetan (21. bis art.)ren arabera, aipatutako gunean, bertako ez diren hosto iraunkorra duten zuhaitz moten landaketa masiboa, debekaturik dagoela.

KONTUTAN HARTUAZ.- Lizartzako Udalak 2005eko martxoaren 21ean hartutako erabakian, Mariano Urbizu jaunari hilabeteko epea eman zitzaiola, egindako lanak legeztatzeko, alegia, landatutako pinua atera, eta horrela egin ezean, Lizartzako Udalak aterako

zituela, exekuzio ordezkatzailan, gastuak interesdunaren gain joango direlarik, ohartaraziz.

KONTUTAN HARTUAZ.- Alegazioak egiteko emandako epearen barruan, Urbizu jaunak idatzia aurkeztu zuela Udalaren aurrean, martxoaren 21eko Alkatetza Dekretua bertan bera uztea eskatuz.

KONTUTAN HARTUAZ.- Udaleko zerbitzu juridikoek gai honi buruz luzatutako txostenean, Urbizu jaunak egindako alegazioak ezestea proposatzen dela, alegatzaileek emandako kasua eta Lizartzakoa ezin direlako berdindu. Lizartzan, Udalak ez dihardu mendien, ustiapenen eta baso-zerbitzuen arloan, Konstituzioari, Euskal Autonomia Estatutuari eta Lurralde Historikoen Legeari jarraiki, Foru Diputazioaren eskumena baitira. Udalak dihardu hirigintza eta ingurumenaren arloan duen eskumen-ahalmena duelako, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan ezarritakoa betez.

KONTUTAN HARTUAZ.- Emandako hilabeteko epea pasa dela Urbizu jaunak, egindako lanak legeztatu gabe, Udalak agindu bezala.

KONTUTAN HARTUAZ.- Toki Erregimenaren Oinarri Legearen 21.1 k) eta 68.1 artikulua xedatutakoaren arabera.

ERABAKI DUT:

- 1.- Mariano Urbizu Zabala jaunari berriro, HILABETEko epea ematea, landatutako pinua atera dezan.

2.- Honela egiten ez bada, Lizartzako Udalak ateratzea, exekuzio subsidiarioan, gastuak interesdunaren gain joango direlarik, udalak eginiko balorapenaren arabera.

3.- Erabaki honen aurka ezin da helegiterik ezarri, beste erabaki irmo baten exekuzioa bai da. Hala ere legeak ematen dizkion bideak erabil ditzake.

URBA UTE – PABEILOIAK – 2005-08-01 – 463 zkia.

GAIA.- U-1 Sektorean, Hiritartze Proiektua onartu gabe egonda eta baimenik gabe, pabeiloien eraikitze obren geldiaraztea, eta zigor espedientearen hasiera.

IKUSIZ.- 2005eko Uztailaren 28an, Udal Arkitektuak egindako Txostena.

KONTUTAN HARTUAZ.- 2005eko uztailan, U-1 sektorean pabeiloiak eraikitze lanak hasi zirela, eta obrak baimendu ahal izateko hiritartze egitasmoa Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak aurkako txostena eman zuela 2004ko abuztuan, zubiaren egitasmoa egokitzapen lan batzuk burutu behar zirela esanez. Ur Zerbitzuetako eskaera jarraituz, Jose Ignacio Galarragak eta Asmatu S.L. enpresak proiektuaren moldaketa egin eta Ur Zerbitzuetara igorri zutela eta Udalak ez duela oraindano aldeko baimenik jaso.

KONTUTAN HARTUAZ.- Esandako obrak, hiritartze egitasmoa onartu gabe eta baimenik gabe hasi direla, txostenak dioen arabera, eta beraz ez dagoela obrak egiteko baimenik.

KONTUTAN HARTUAZ.- 1978ko ekainaren 23an onartutako 2187/1978 Errege Dekretuaz onartutako Hirigintza-Disziplina Erregelamenduko 8. artikulua.

KONTUTAN HARTUAZ.- 1978ko Ekainaren 23an onartutako 2187/1978 Errege Dekretuaz onartutako Hirigintza-Disziplina Erregelamenduko 90. artikulua.

KONTUTAN HARTUAZ.- Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri Legearen 21. artikulua xedatutakoaren arabera.

ERABAKI DUT:

- 1.- URBA U.T.E. enpresa, U-1 eremuan egiten ari den pabeiloak eraikitze lanen geldiarazpena agindu.
- 2.- Hirigintza arloan egindako arau-haustearen ondorioz zigor-espeditentea irekitzea eta arau hauste horren arduraduntzat jotzea, URBA U.T.E. enpresa eta JORGE LIZARRIBAR SANS Zuzendari Teknikoa.
- 3.- Zigor prozeduran instrukzio-egile izendatzea, ANA JESUS ZABALA GARMENDIA Anderea, Udalaren idazkaria.

Aditzera ematea espeditentea ebazteko eskumena duen organoa udalaren Alkate jauna dela, Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko premiazko neurrien martxoaren 6ko 5/1998 Legeko 11. artikuluan ezarritakoarekin bat.

- 4.- Ebazpen hau eta horren oinarritzat erabiltzen den txosten teknikoak jakinaraztea URBA U.T.E. enpresaren ordezkari eta JORGE LIZARRIBAR SANS zuzendari teknikoari. Halaber, aditzera ematea 15 egun balioduneko epea izango duela ebazpen honen jakinerazpena egiten denetik, nahi diren alegazio eta agiriak aurkeztu ahal izateko, eta nahi bada legeak aurrikusten dituen frogak proposamena egiteko.
- 5.- Hilabeteko epea ematea, egindako lanak legeztatzeke udalaren aurrean.

6.- Interesatuei jakinaraztea azaroaren 26ko 30/1992 legeko 116. artikulua ezarritakoaren arabera, erabaki hau administrazio bidean irmoa eta behin betikoa denez, haren aurka administrazio-auzi gaietako helegitea jar daiteke, beti ere bi hilabetetako epean, jakinerazpen honen egunetik hasita kontatzen, eta Donostiako Epaitegiaren aurrean.

Dena den eta aipatutako artikulua arabera aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke, Alkatetza honen aurrean, jakinerazpen honen egunetik hasita, hilabete baten epean.

JONE ZUBELDIA – 2005-06-13

-OBREN ETENDURA-

OBRRAREN DATUAK:

Kokalekua: Kale Nagusia, 15

Jabea: JONE ZUBELDIA ALTUNA

JONE ZUBELDIA ALTUNA Andereak, Kale Nagusia, 15ean, eta baimenik gabe, eginiko obrei buruz, Udaleko Zerbitzu Teknikoek eta egindako txostenak ikusi ondoren, erabaki hau hartu dut:

Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri Legearen 21. artikulua Ikusi ondoren eta baita ekainaren 23ko 2187/78 Errege-Dekretuz onartutako Hirigintza-Disziplina Erregelamenduko 29. artikulua ere, eta aipatu Hirigintza-Disziplinaren Erregelamenduko 1. artikuluko zenbakian tipifikatuak eta Lizartzako Arau Subsidiarioetan oinarritutako eraikuntza obrak baimenik gabe egin eta egiten ari dela ENTZUN ONDOREN,

HONAKO HAU ERABAKI DU:

- 1.- Jone Zubeldia Altuna Anderea, Kale Nagusia, 15ean, eta Udal baimenik gabe egiten ari den lanen geldiarazpena agindu.
- 2.- 15 eguneko epea ematea, Jone Zubeldia Altuna Andereari, ebazpen honen jakinerazpena egiten denetik, nahi diren alegazio eta agiriak aurkeztu ahal izateko, eta nahi bada legeak aurrikusten dituen frogen proposamena egiteko. Epea pasatakoan, Udalak dagokion zigor espedienteari hasiera emango dio, akordio honetan agertutako ekintzengatik.
- 3.- Hilabeteko epea ematea, egindako lanak legeztatzeke udalaren aurrean.
- 4.- Tramite hutsezko ekintzak direnez, akordio hauen aurka ezin da errekurtsorik jarri, interesatuek beraien eskubideen defentsan egokitzat jotzen dituzten ekintza guztien kalterik gabe.

SEGREGAZIO BAIMENAK

JOSEFINA OLAETXEA KARRERA – 2005-04-19 – 246 zkia.

JOSEFINA OLAETXEA KARRERA Andreak, Arano (Nafarroa)ko Plazako Borda Etxean helbideratuak, 2005eko Urtarrilaren 12an eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen du, beren jabetzakoak diren, bi lur zati hauetatik:

- 1.- Heredad sembradía, situada en el término nombrado Telleria, que linda: Norte, Terreno de Ines Olaechea; Sur, terreno y caserío Irunzi; Este, terreno y caserío Irunzi, y Oeste, camino hacia Tolosa. Tiene nueve áreas, treinta y siete centiáreas y cincuenta decímetros cuadrados.
- 2.- Terreno huerta en el punto Echaburua, que linda: Norte, huerta de Ines Olaechea; Sur, Casa Huarte; Este, camino carretil y Oeste, huerta de Jenaro Olaechea. Tiene doscientos veinticinco metros cuadrados”.

2. zenbakidun lurzattia banandu, ondoren, IDOIA OBINETA OLAETXEA Andereari saldu ahal izateko.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinaren Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da, baldintza honekin:

Lur zati honek eta Maria Ines Olaetxea Karrera Andreari erositako bi lur zatiek, finka bakar eta banaezina osatuko dute, Erregistroan horrela inskribatuaz.

INES OLAETXEA KARRERA – 2005-04-19 – 248 zkia.

MARIA INES OLAETXEA KARRERA Andreak, Leitza (Nafarroa)ko Manuel Laxarte, 5 – 1.an helbideratuak, 2005eko Urtarrilaren 12an eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen du, beren jabetzakoak diren, hiru lur zati hauetatik:

1.- Heredad sembradía, situada en el término nombrado Telleria, que linda: Norte, regatas que dividen la jurisdicción de Lizartza y Gaztelu; Sur, terreno de Josefina Olaechea; Este, terreno de Iruntzi, y Oeste, camino carretil hacia

Tolosa. Tiene nueve áreas, treinta y siete centiáreas y cincuenta decímetros cuadrados.

2.- Terreno huerta en el punto Echaburua, que linda: Norte, de Francisco Olaechea; Sur, huerta de Josefina Olaechea; Este, camino carretil y Oeste, huerta de Jenaro Olaechea. Tiene doscientos veinticinco metros cuadrados”.

3.- Una heredad de nueve áreas y tres metros de labrantío y siete áreas y ochenta metros de herbal, confinante por Norte con heredad del caserío Aizpea, por Oriente con el caserío Mariquinea, por Mediodía con el caserío Sagastinezarreneá y por Poniente con camino carretil público.”

2. eta 3 zenbakidun lurzatiak banandu, ondoren, IDOIA OBINETA OLAETXEA Andereari saldu ahal izateko.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinen Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da, baldintza honekin:

Bi lur zati hauek, eta Josefina Olaetxea Karrera Andereari erositako zatiak, finka bakar eta banaezina osatuko dute, Erregistroan horrela inskribatuaz.

IGNACIO ALTUNA ARRUABARRENA – 2005-07-21 – 441 zkia.

IGNACIO ALTUNA ARRUABARRENA Jaunak, Lizartzako Joangi Baserrian helbideratua, 2005eko Uztaillaren 15ean eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen du, bere jabetzakoa den, lur zati hau:

1.- Hayal de Gorocenero-malloa, que confina por Norte con camino y por Este, Oeste y Sur con terrenos comunes de la villa; mide treinta áreas y treinta y cuatro centiáreas. Polígono 1 – Parcela 431 c).

Beren jabetzako lurretatik banandu, ondoren, PEDRO URKIZAR LARRARTE Jaunari saldu ahal izateko.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinariaren Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da, baldintza honekin:

PEDRO URKIZAR LARRARTE Jaunak, lur hau, bere jabetzakoa den, BEORRITA Baserriari lotu beharko dio.

RAFAEL AGINAGA AROZENA – 2005-08-26 – 488 zkia.

RAFAEL AGINAGA AROZENA Jaunak, NAN 34.094.349 T zenbakidunak, Tolosako, lurreamendi, 15 B, 1.ga Erdian helbideratuak, 2005eko uztailaren 12an eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen dute, beren jabetzakoa den, ELORRIAGA izeneko lurra banantzeko:

1.- “Un trozo de terreno,antes robledal, ahora pinar y herbal, denominado Elorriaga, que mide sesenta áreas y ochenta y tres centiáreas de medida real pericial y linda: Norte, con pertenecidos de Juan Miguel-Aundia; Oeste y Sur, con los mismos de Juan Miguel-Aundia, y Este, con terreno de Eugenio Arocena”

Bere jabetzako lurretatik banandu, ondoren, GREGORIO LOPETEGI LARRARTE eta MARIA ROSARIO AROZENA ETXEBERRIA Jaun/Andreari saldu ahal izateko. Hauek, bere jabetzakoa den Juanmigelaundi Baserriko lurrei erantsiko die.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinariaren Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da.

PEDRO URKIZAR LARRARTE – 2005-10-03 – 527 zkia.

PEDRO URQUIZAR LARRARTE Jaunak, NAN 72.509.887 H zenbakidunak, Tolosako, Gudari Kalea, 18 – 3.an helbideratua, 2005eko irailaren 20an eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen du, beren jabetzakoa den BEORTEGI Baserriaren bereizketa egiteko:

“Caserío Beortegieta o Ituartenea, en el cuartel del Norte de la villa de Lizartza; su fábrica de cantería ocupa una area y cincuenta centiáreas aproximadamente, confina por sus cuatro puntos cardinales con sus pertenecidos.

Se hallan contiguos a la casa formando un solo grupo los terrenos siguientes:

- 1.- Un área y setenta y nueve centiáreas de solar (1,79 a).
- 2.- El arbolado y castañar ATARICO GAZTAÑADIA de ciento nueve áreas y noventa y siete centiáreas (109,96 a).
- 3.- La heredad nombrada BORDA ONDOKO SOROA, contiene ochenta y tres áreas y ochenta y cuatro centiáreas de sembradío, con diecinueve áreas y cincuenta y ocho centiáreas de herbal (103,42 a).
- 4.- La heredad nombrada OLASORO, mide cuarenta y siete áreas y cuarenta y dos centiáreas de sembradíos, cinco áreas y treinta y dos centiáreas de herbal. (52,74 a).
- 5.- El terreno ELIAS-SORO, de doce áreas y setenta y una centiáreas de herbal (12,71 a).
- 6.- En GOTZA-ZELAIA, treinta y ocho áreas y cuarenta y ocho centiáreas de sembradío (38,48 a). Y fuera de la cerradura: otras veintisiete áreas y cuarenta y nueve centiáreas de helechal (27,49 a).

- 7.- En ARRIAUNDIKO-CHULO, veintiuna áreas y noventa y nueve centiáreas de helechal (21,99 a).
- 8.- En ARCOINTECHO-GARO-LEKU-CHIQUIA, hay once áreas y sesenta y ocho centiáreas de helechal (11,78 a).
- 9.- En ARKONGIETA, hay dos áreas y ochenta y seis centiáreas de herbal (2,86 a).
- 10.- En GAROCELAITA, ochenta y seis áreas y noventa y cuatro centiáreas de helechal (86,94 a).
- 10.- AZKONDEITA herbal, contiene ciento diecinueve áreas y dos centiáreas (119,02 a).
- 11.- En el herbal llamado CADUTI llamado también CACHETI, hay diecinueve áreas y ochenta y cuatro centiáreas de herbal con otras dos áreas y setenta y cuatro centiáreas de zarzal (22,58 a).
- 12.- AZKONDEITA hayedal, robledal y castañar, contiene diecinueve áreas (19 a).
- 13.- AÑIBARRENA, hayal y jaral, contiene ciento sesenta y ocho áreas (168 a).
- 14.- Parcela llamada GOROZENERO-MALLOA, hayal, mide treinta áreas y treinta y cuatro centiáreas (30,34 a).

Era honetan banantzea eskatzen du:

1.- FINKA

“Caserío Beortegieta o Ituartenea, en el cuartel del Norte de la villa de Lizartza; su fábrica de cantería ocupa una area y cincuenta centiáreas

aproximadamente, confina por sus cuatro puntos cardinales con sus pertenecidos.

- a.- Un área y setenta y nueve centiáreas de solar (1,79 a).
- b.- El arbolado y castañar ATARICO GAZTAÑADIA de ciento nueve áreas y noventa y siete centiáreas (109,96 a).
- c.- La heredad nombrada BORDA ONDOKO SOROA, contiene ochenta y tres áreas y ochenta y cuatro centiáreas de sembradío, con diecinueve áreas y cincuenta y ocho centiáreas de herbal (103,42 a).
- d.- El terreno ELIAS-SORO, de doce áreas y setenta y una centiáreas de herbal (12,71 a).
- e.- En GOTZA-ZELAIA, treinta y ocho áreas y cuarenta y ocho centiáreas de sembradío (38,48 a).
- f.- AZKONDEITA hayedal, robledal y castañar, contiene diecinueve áreas (19 a).
- g.- Parcela llamada GOROZENERO-MALLOA, hayal, mide treinta áreas y treinta y cuatro centiáreas (30,34 a).

Hauek, finka bakar eta banaezina osatuko dute, guztira, hiruehun eta hamabost area, hirurogeita hamar zentiaarea (315,70 a), neurtzen duelarik.

2.- FINKA

- a.- La heredad nombrada OLASORO, mide cuarenta y siete áreas y cuarenta y dos centiáreas de sembradío, cinco áreas y treinta y dos centiáreas de herbal (52,74 a).

- b.- AZKONDEITA herbal, contiene ciento diecinueve áreas y dos centiáreas (119,02 a).
- c.- En ARKONGIETA, hay dos áreas y ochenta y seis centiáreas de herbal (2,86 a).
- d) Hayal y jaral denominado AÑIBARRENA, contiene ciento sesenta y ocho áreas (168 a).

Hauek, finka bakar eta banaezina osatuko dute, guztira, hirurehun eta berrogeita bi area hirurogeita bi zentiaera (342,62 a), neurtzen duelarik.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinen Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da.

LEHEN ERABILERA KO BAIMENAK

AITOR-ANDER OLAETXEA eta ARANTXA MENDIZABAL – 2005-04-14 – 226 zkia.

AITOR-ANDER OLAETXEA GOIKOETXEA eta ARANTXA MENDIZABAL SALABERRIA, Ermitaldea Auzoan kokatzen den, UBERETA

GAIN Etxea, 2003ko Otsailaren 26an, Alkatetzaren Dekretuaren bidez emandako obra baimenaren arabera eraikitako BI FAMILIKO ETXEBIZITZA Lehen Erabilpen baimena eskatu du.

Udaleko Teknikoek aldeko txostenak luzatu dituzte.

TRLS.ko 242.2 eta RDU.ko 1-10 artikuluek diotenaren arabera, ERABAKI DUT:

Udal honek dituen konpetentzien barnean, eta beste Erakundeei dagozkienaren kalterik gabe, eskatutako lehen erabilerako baimena ematea.

Era berean gogorarazten dizut erabakia zure kontrakoa edo aldekoa izan, erabakiaren aurka jotzeko eskubidea daukazula. Erabaki horren aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino lehen berraztertzeko errekurtsoa ipini ahal duzu; beti ere, 30/1992 Legearen¹ 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete (1) izango duzu, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean ipini ahal duzu, aurretik berraztertzeko errekurtsorik ipini gabe. Horretarako bi hilabete (2) izango dituzu, dekretu honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

JOSE ANTONIO MINTEGI – JOSE M^a ZEBERIO – 2005-06-01 – 341 zkia.

JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE – JOSE M^a ZEBERIO ARRUABARRENA Jaunek, Ostatu Berri Aldea, 4 – Toki Eder Etxea kokatzen den, 2002ko Irailaren 16an, Alkatetzaren Dekretuaren bidez emandako obra baimenaren arabera eraikitako Famili Bikoitzeko Etxebizitzaren Lehen Erabilpen baimena eskatu dute.

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

Udaleko Teknikoek aldeko txostenak luzatu dituzte.

TRLS.ko 242.2 eta RDU.ko 1-10 artikuluek diotenaren arabera, ERABAKI DUT:

Udal honek dituen konpetentzien barnean, eta beste Erakundeei dagozkienaren kalterik gabe, eskatutako lehen erabilerako baimena ematea.

Baimen hori ez da indarrean sartuko, baldintza hauek betetzen ez diren bitartean:

- .- Sotoari azalera bat gehitu zaio terrazaren azpian, biltegi modura erabiltzeko.
- .- Sotoetako baten zoruan hobi bat ireki da.
- .- Hobi septikoko uren kanalizazioa ez dago amaituta, ez baitira sare orokorrera eramaten.

Aldaketa hauek direla eta, beharrezkoa izango da obra bukaerako planu berria aurkeztea, eta hobi septikoa ongi bukatzea.

Baita ere, U-4 inprimakia beteta aurkeztea, katastroan alta emanaz.

Era berean gogorarazten dizut erabakia zure kontrakoa edo aldekoa izan, erabakiaren aurka jotzeko eskubidea daukazula. Erabaki horren aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino lehen berraztertzeko errekurtsoa ipini ahal duzu; beti ere, 30/1992 Legearen¹ 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete (1) izango duzu, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean ipini ahal duzu, aurretik berraztertzeko errekurtsorik ipini gabe. Horretarako bi hilabete (2) izango dituzu, dekretu honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

IGOKA ESPEDIENTEAK

LIZARTZAN SUPERMERKATUA – 2005-04-22 – 252 zkia.

Lizartzako Udalak, Urdondo Kalea, 15 bh.an kokatuko den, SUPERMERKATUA egiteko baimena eta iharduera horri ekiteko jarraitutako espedienteak ikusiz gero.

Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

Kontutan hartuaz, eskatutako aktibitatea, Gipuzkoako Foru Aldundiako Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuak, SUPERMERKATUA bezala, klasifikatu duela.

1961eko Azaroaren 30eko IGOKA Erregelamenduak eta ebazpen osagarriek diotenaren arabera, ERABAKI DA:

1.- LIZARTZAKO UDALA baimentzea, herri honetako Urdondo Kalea, 15 bh.an kokatuko den, SUPERMERKATUA egiteko.

1998ko otsailaren 27ko 3/1998ko Legearen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorren 61.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki, jarduera ezin izango da martxan jarri, Irekitzeko Lizentzia eskuratu arte.

Aipatutako Irekitze Lizentzia eskuratzeko derrigorrezkoa da eskumena duen funtzionari tekniko batek dagokion egiazpenerako bisitaldia egitea.

INSALUSKO URAK S.A. – 2005-05-06 – 267 zkia.

IKUSIRIK.- AGUA DE INSALUS S.A.k aurkeztu duen, herri honetako A-5 arean kokatua dagoen enpresaren Irekiera baimena eguneratzeko baimena eskaera, eta horri buruz eman diren tramiteak.

IKUSIRIK.- Iharduera jarri nahi den eraikuntza, 1961eko Azaroaren 30eko Erregelamenduak dioenarekin, Udaleko Arauetara egokitu, eta Arau Subsidiarioetako hirigintz kalifikazioarekin ados dagoela.

IKUSIRIK.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, aldeko txostena luzatu duela.

Horren arabera, zera ERABAKI DUT:

- 1.- Agua de Insalus S.A.k aurkeztu duen, herri honetako A-5 Arean kokatua dagoen enpresaren Irekiera baimena eguneratzeko eskaturiko baimenari, aldeko txostena luzatzea.
- 2.- Ihardueraren ezaugarrien arabera, UR NATURAL MINERALA ETA KARBONIKOAREN ONTZIRAKETA kalifikazioa proposatzen da.

IRUNTZIALDEAK GOZOGINTZA EKOIZTEA – CASA ECEIZA S.L. – 2005-05-06 – 283 zkia.

IKUSIRIK.- Casa Eceiza S.L.k, Iruntzialdean kokatuko den, GOZOGINTZA EKOIZTEA egiteko baimena eta iharduera horri ekiteko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

IKUSIRIK.- Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

KONTUAN HARTUAZ.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, aldeko txostena luzatu duela.

Horren arabera, zera ERABAKI DUT:

- 1.- Casa Eceiza S.L.k aurkeztu duen, herri honetako Iruntzialdean kokatuko den, GOZOGINTZA EKOIZTEA Irekiera baimena egiteko eskaturiko baimenari, aldeko txostena luzatzea.
- 2.- Ihardueraren ezaugarrien arabera, GOZOGINTZA EKOIZTEA kalifikazioa proposatzen da.

INSALUSKO URAK S.A. – 2005-06-08 – 358 zkia.

IGOKA ESPEDIENTEA. UR NATURAL MINERALA ETA KARBONIKOAREN ONTZIRAKETA

Agua de Insalus S.A.k, herri honetako A-5 Arean, Ur Natural Minerala eta Karbonikoaren Ontziraketa jartzeko eta iharduera horri ekiteko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

Kontutan hartuaz, eskatutako aktibitatea, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamentu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, UR NATURAL MINERALA ETA KARBONIKOAREN ONTZIRATZEA bezala, klasifikatu duela.

1961eko Azaroaren 30eko IGOKA Erregelamenduak eta ebazpen osagarriek diotenaren arabera, ERABAKI DUT:

- 1.- AGUA DE INSALUS S.A. baimentzea, herri honetako A-5 Arean, Ur Natural Minerala eta Karbonikoaren Ontziratzea jartzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroak ezarritako neurri zuzentzaileak bete behar direlarik:

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailordetzak bidalitako txostena eransten da.

BALDINTZAK

- 1.- Aldeko Ikuskaritza Akta lortu aurretik ezin izango da, aktibitatea martxan jarri.
- 2.- Akta hori lortu ahal izateko, Agua de Insalus S.A.k, Udalari eskatu beharko dio, Ikuskaritza bisita egiteko.
1998ko otsailaren 27ko 3/1998ko Legearen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorraren 61.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki, jarduera ezin izango da martxan jarri, Irekitzeko Lizentzia eskuratu arte.

Aipatutako Irekitze Lizentzia eskuratzeko derrigorrezkoa da eskumena duen funtzionari tekniko batek dagokion egiazpenerako bisitaldia egitea.

CASA ECEIZA S.L. – 2005-06-08 – 359 zkia.

IGOKA ESPEDIENTEA. GOZOGINTZA EKOIZTEA

Casa Eceiza, S.L.k, herri honetako Iruntzialdean, Gozogintza Ekoiztea jartzeko eta iharduera horri ekiteko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

Kontutan hartuaz, eskatutako aktibitatea, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, GOZOGINTZA EKOIZTEA bezala, klasifikatu duela.

1961eko Azaroaren 30eko IGOKA Erregelamenduak eta ebazpen osagarriek diotenaren arabera, ERABAKI DUT:

- 1.- CASA ECEIZA, S.L. baimentzea, herri honetako Iruntzialdean, Gozogintza Ekoiztea jartzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroak ezarritako neurri zuzentzaileak bete behar direlarik:

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailordetzak bidalitako txostena eransten da.

BALDINTZAK

- 1.- Aldeko Ikuskaritza Akta lortu aurretik ezin izango da, aktibitatea martxan jarri.
- 2.- Akta hori lortu ahal izateko, Casa Eceiza S.L.k, Udalari eskatu beharko dio, Ikuskaritza bisita egiteko.

1998ko otsailaren 27ko 3/1998ko Legearen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorren 61.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki, jarduera ezin izango da martxan jarri, Irekitzeko Lizentzia eskuratu arte.

Aipatutako Irekitze Lizentzia eskuratzeko derrigorrezkoa da eskumena duen funtzionari tekniko batek dagokion egiazpenerako bisitaldia egitea.

MARTIN BELAMENDIA – ILLARRATSU – 2005-06-14 – 370 zkia

IKUSIRIK.- Martin Belamendia Uria Jauank aurkeztu duen, herri honetako Illarratsu inguruan kokatua dagoen, Illarratsu etxean, Landalur Etxea eta Jatetxea jartzeko Irekiera baimena eskaera, eta horri buruz eman diren tramiteak.

IKUSIRIK.- Iharduera jarri nahi den eraikuntza, 1961eko Azaroaren 30eko Erregelamenduak dioenarekin, Udaleko Arauetara egokitu, eta Arau Subsidiarioetako hirigintz kalifikazioarekin ados dagoela.

IKUSIRIK.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, aldeko txostena luzatu duela.

Horren arabera, zera ERABAKI DUT:

- 1.- Martin Belamendia Uria Jaunak aurkeztu duen, herri honetako Illarratsu inguruan kokatua dagoen, Illarratsu etxean, Landalur Etxea eta Jatetxea jartzeko Irekiera baimenari, aldeko txostena luzatzea.
- 2.- Ihardueraren ezaugarrien arabera, LANDALUR ETXEA ETA JATETXEA kalifikazioa proposatzen da.

IGOKA ESPEDIENTEA. ILLARRATSU ETXEAN, NEKAZAL TURISMOAN TABERNA-JATETXEA – 2005-08-01 – 462 zkia.

Martin Belamendia Uria Jaunak, herri honetako Illarratsu inguruan, Illarratsu etxean, Nekazal Turismoan Taberna-Jatetxea jartzeko eta iharduera horri ekiteko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

Kontutan hartuaz, eskatutako aktibitatea, Gipuzkoako Foru Aldundiako Garapen Iraunkorrerako Departamentuak, NEKAZAL TURISMOAN TABERNA-JATETXEA bezala, klasifikatu duela.

1961eko Azaroaren 30eko IGOKA Erregelamenduak eta ebazpen osagarriek diotenaren arabera, ERABAKI DUT:

- 1.- Martin Belamendia Uria Jauna baimentzea, herri honetako Illarratsu inguruan, Illarratsu etxean, Nekazal Turismoan Taberna-Jatetxea jartzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiako Garapen Iraunkorrerako Departamentuak ezarritako neurri zuzentzaileak bete behar direlarik.

BALDINTZAK

Gipuzkoako Foru Aldundiako Garapen Iraunkorrerako Departamentuak bidalitako txostena eransten da.

- 1.- Aldeko Ikuskaritza Akta lortu aurretik ezin izango da, aktibitatea martxan jarri.
- 2.- Akta hori lortu ahal izateko, Martin Belamendia Uria Jaunak, Udalari eskatu beharko dio, Ikuskaritza bisita egiteko.
1998ko otsailaren 27ko 3/1998ko Legearen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorren 61.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki, jarduera ezin izango da martxan jarri, Irekitzeko Lizentzia eskuratu arte.

Aipatutako Irekitze Lizentzia eskuratzeko derrigorrezkoa da eskumena duen funtzionari tekniko batek dagokion egiazpenerako bisitaldia egitea.

IOLA – ERREKLAMAZIOA – 2005-0418 – 231 zkia.

AURREKARIAK

2005eko Apirilaren 7an, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 2. Epaitegiak, Ana Maria Iriarte Garbisu andereak, Lizartzako Udalaren erabakia, non 2002ko abuztuaren 4ean Udalerriko bide batean jasandako erorketa dela eta egindako erreklamazioa esezitzen duen Alkatetza Dekretuaren aurkako helegitea jarri dutela, 130/05 zk.duna, adierazi dio Lizartzako Udalari.

GERTAKARIAK

- 1.- Udal honek obligazioa dauka bere ondasunak eta eskubideak defendatzearen beharrezko legezko akzioak egikaritzea.

- 2.- Oro har, Udalbatzari dagokion administrazioko eta legezko akzioak egikaritzeko.
- 3.- Presa dagoela eta Alkate-Lehendakariari dagokio bidezko akzio administratiboak eta judizialak egikaritzea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

- 1.- Eraentza Lokalaren Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeko 21.1 k), 22.2 j) eta 68.1 artikulua.

Aurreko guztiak kontuan izanik, hona Alkate-Lehendakariak hartutako

ERABAKIAK

- 1.- Ana Maria Iriarte Garbisu andereak ezarritako 130/05 administrazioarekiko auzi-helegitean alderdi demandatu gisa bertaratzea. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko 2. Auzi Epaitegian ari da bideratzean.
- 2.- Abokatu-lana, ALEJANDRO CASTRO UBETAGOIENA abokatuari bidaltzea, aipatutako helegitean Udal honen interesak defenda ditzan. Abokatu hori ISABEL MARIN CANO eta ALBERTO ARENAZA ARTABE Prokuradoreaz balia daiteke. Udal honek prokuradore horiei auzitan aritzeko ahalorde orokorra eman baitie.
- 3.- Hurrengo Udalbatzan erabaki hauen berri ematea eta, bidezkoa bada Udalbatzak erabakia berrestea.

ALKATETZA DEKRETUAREN AKATS ZUZENKETA – 2005-06-01 – 343 zkia.

2004ko Azaroaren 16an luzatutako Alkatetza Dekretuaren bitartez, LIZARTZAKO UDALAREN izenean dagoen, AZTINAKO-ETXE-BURUA izeneko lurrik, 144,30 m² banantzeko udal baimena eman zen.

Alkatetza Dekretu horretan, agertzen den, lur horren deskripzio berrian, neurritan akats bat dagoenez, hau da, deskripzio erreala:

- 1.- “Hereditad denominada Aztinako-etxe-burua, en Lizartza, que linda: Norte, camino carretil; Sur y Este, con terreno permutado con Maria Reyes y Xabier Urbizu Urdampilleta y camino público, y Oeste, con Mintegiaga. Tiene catorce áreas, ochenta y dos centiáreas y treinta decímetros cuadrados.”

YAHIA OULD WALLED – 2005-06-08 – 356 zkia.

Eskaria kontuan hartuz, eta udal teknikariaren txostena irakurri ondoren, honako hau ERABAKI DUT:

Espediente honetako eskatzaileari 2005eko udalekuei dagokien kuota dohainikoa onartzea, aurtengo Gizarte Zerbitzuetako aurrekontuaren gain aplikatuz zenbatekoa. Kuotaren zenbatekoa: 60 €

LIZAR SUPERMERCATUA – IREKITZE BAIMENA – 2005-04-22 – 253 zkia.

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

Espediente honetako eskatzaileari irekitzeko baimena EMATEA.

Era berean, gogorarazten dizut erabakia zure kontrakoa edo aldekoa izan, erabakiaren aurka jotzeko eskubidea daukazula. Erabaki horren aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino lehen berriro aztertzeko errekurtsoa ipini ahal duzu; beti ere, 30/1992 Legearen¹ 116. artikulua eta hurrengo araber. Horretarako, hilabete (1) izango duzu, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean ipini ahal duzu, aurretik berraztertzeko errekurtsorik ipini gabe. Horretarako bi

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

hilabete (2) izango dituzu, dekretu honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita;

ERAKUNDEEI LAGUNTZAK

OTSABIO KIROL ELKARTEA – 2005-05-06 – 268 zkia.

Otsabio Kirol Elkarteak, Martxoaren 19an, AFIZIONATUENTZAT izango den XVII. TXIRRINDULARI FROGRA-ren alde laguntza eskatu du:

- 800,00 €-tako diru-laguntza
 - Karrera egunerako frontoiko aldagelak eta dutxak.
